



Neska gazte dotoriak

Ordurako ondo modernak ziran, ba, neska gazte honeik. **Aldaketa-urtiak** ziran, izan be. Bigarren Errepublikiak **haize eta moda barrixak** ekarri zittuan arlo desbardiñetara: soiñeko koloretsu eta motzaguak, orrazkera ausartaguak, ohittura libretxuaguak. Politikan ez ezik, **irakaskuntzan be igarri zan** barrikuntzarako joeria gure artian: 1928 eta 1936 bittartian Oñatin jardun euen bigarren maillako institutuak eta herri-eskola euskaltzaliaguak sakon samar eragin otsain herriko gizartiar. Zoritxarrez, ez eben kanbixo-giruak asko iraun, 1936ko **gerra gogor-zittalak** eta ondoren etorri zan **errepresiño latz-luziak** pikutara bialdu zittuaillako orduko asmo, ilusiño eta ametsik gehixenak.

Argazkixan agiri diran gaztion itxuriak garbi asko erakusten dosku garai haretan nabarmendu zan **aldaketa-guria**. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue euron izenak:

Genoveva Zelaia, Zañartuko Upaingua; **Pilar Arrue**, Arantzazu kalekoa; **Leonor Zulueta**, guraso oñatiarrak eukan amerikania, Galartzatarren lehengusiña; **Maxima Zelaia**, Zañartuko Upaingua, Genovevaren ahizpia; **Margarita Iturmendi**, Kale Barriko *Naparrena* tabernakua; **Mercedes Letamendi**, plazako tela-dendakua; eta **Kontxita Medrano**, Bidebarrietakua, albaitarixaren alabia.

J. E.

Fotografixia gerra aurtxokua izango da, orain dala larogei urte pasatxokua. Jatorrizko kopixia eskuratu dogun arren, eztakar bertan nork atara eben.